

## MU AKTIBO izeneko zerbitzu berriarekin dator Kirol Zerbitzua

2012/06/12

**MU Kirol Zerbitzuak**, ikasle zein langileentzat zerbitzu bat martxan jarri nahi du. **MU aktiboa** izena duen honek, parte hartzaile guztien jarduera fisikoaren praktika bultzatu nahi du. Hau lortzeko, **jarduera fisikoko kontratu pertsonala** erabiliko da, non Kirol Zerbitzu eta erabiltzailearen artean, erabiltzaileak zein jarduera egiteko konpromezua hartzen duen adostuko den, eta astero honen jarraipena burutuko den.

Kontratu pertsonal hau osatzeko, galdetegi bat pasako zaio parte hartzaile bakoitzari eta hau Kirol Zerbitzuaren eskaintza eguneratzeko ere erabiliko da, **erabiltzailean oinarritutako zerbitzua** emanez, hauen beharrak, nahiak eta zergatiak elkarriketaren bidez ezagutuz.

***Probatu nahi baduzu jarri kontaktuan Kirol Zerbitzuarekin.***

